

## Lemoak badauka Kultur Etxea

Apirilaren 24an ate irekierea egingo da eta egun horretan lemoztarrak Kultur Etxeko espazioak eta bertan emongo diran zerbitzuen barri jakiteko aukerea izango dabe, musikaz lagundutako bisita gidatuakaz. Prozesu parte-hartzailean diseinatu zan Kultur Etxea, eta Kotxepin izena hartu eban, Kotxepin Bengoetxea Etxebarria euskaltzale lemoztarraren omenez. Bisita egiteko lehenengo pasea Kotxepinen familiakoak egingo dabe. **12. orrialdea**



## Aretxabaletaren Larru Bero euskal libururik salduena Amazonen

13. orrialdea

## Igone Etxebarria da Labayruko zuzendari barria

Martian hartu eban kargua bediazarrak.

**E**txeko euskera eta batuaren artean zubilana egiteko sortu zan Labayru Fundazioa. Gauzak asko aldatu diran arren eta gaur egun euskaldun guztiak euskeraz alfabetata egon arren, zubilana egiteko bokazioa ez dau galdu. Sasoi barriai egokitu, euskerearen kalidadearen alde eta herri ondarea zabalduen jarraituko dau, besteak beste. Euskaltegian, itzulpenetan, herri ondarea berreskuratuten edo hiztegi gintzan 40 langilek egiten dabe behar Labayrun. **8. eta 9. orrialdeak**



## Bakearen Lore Gara, memoria artearen bidez



**A**pirilaren 17an, errezitaldia egin eban Diman 1936ko gerra eta gerraosteko biktima eta errepresaliaduai aitortza egiteko. Txumuluxueta alkarteak 6 urte daroaz Dimako memoria historikoa berreskuratzen eta Dimako Udalagaz eta Abizarie alkarteagaz errezitaldia antolatu eban, 1937ko apirilaren 7an herria bonbardeatu ebela gogoratzeko eta *Hitza, memoria, errebotea, oihartzuna* liburua aurkezteko. **7. orrialdea**

### IGORRE

## Bonodenda kanpainara aurrekoetan baino saltoki gehiago batu dira

Ohiko Bonodenda kanpaina ipini dabe martxan Igorreko Udalak eta AME merkatarien alkarteak. 1.800 bonu dagoz salgai, laguntzea %25etik %33ra pasau da eta herriko komertzio gehiago batu dira kanpainara. Maiatzaren 31ra arte erabili ahal izango dira bonuok. **5. orrialdea**

### BEDIA

## Murtatza auzokoak EEH plantaren proiektuaren kontra agertu dira

Murtatzako hainbat bizilagun batu dira RCD Hemen Ez! plataformara. Izan be, Usansoloko Gorosibain, Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen-tzako (EEH) planta bat egiteko proiektua dauka Moyua enpreseak. **5. orrialdea**

### ARRATIA

## Ander Zuluaga: "Lehen jaunartzerako bitxi salmentak asko bajatu dira"

Zeanuriko Isidor Zuluaga bitxigile lanetan hasi zan 1950eko hamarkadan Bilbon. Bere andreagaz batera Maria Eugenia Gortazarregaz 1988an Galdakaon denda bat zabaldu eban eta euren semeak jarraipena emon deustie negozioari. Eguzkilore marka sortu ebenetik hainbat denda zabaldu dabez.

Bitxigintzea be sasoietara moldatu behar izan da eta bitxiak aldatu edo bezeroen ideak eta urteagaz sortuten ditue. Ander Zuluagak, bitxi jagokienean, zer dagoan modan eta zeintzuk diran oingo jentearen gustuak azaldu deustoa BEGITURI. **6. orrialdea**



**ENTZUMEN PROBA  
EGINGO DIZUGU, ETORRI.  
AUDIOMETRIA ZEURE NEURRIRA**



**OSASUN  
PROTOKOLOA**

94 657 70 03 Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)



**Olaetxe  
OPTIKA ZENTRUA**

# Literatura txokoa

## ODOL MAMITUAK

Martiaren 8aren inguruan Artean mahai-inguru baten izan genduan Alaine Agirre Garmendia Katixa Agirre Miguelezegaz batera, eta horrek bere egunean harritu ninduan *Odol mamituak* eleberria ekari eustan burura. Harritu era baikor batean tratetan daualako gaia; kontuan izanda gure gizartean gaixotasun mentalak, ospitale psikiatrikoan sartzeak gai oso deserosoak dirala, ezkutuan bizi diranak gehienetan.

Sartu gaitezten istorioan... A. ikasketetan ondo doan neska gazte bat da, alaba ona, larregi eskatzen deitso bere buruari, eta bete egiten dau. Baina, egun baten, ezin dau gehiago eta gero eta larriago dago. Jaten dauana bota egiten dau, martirizatu egiten da, ez dauka ohetik altxatzeko gogorik, eta ansiedadeak irensten

dauan puntu batera iritsi eta agerraldi psikotiko bat izaten dau. "Ez dakit zein unetan apurtu zen nire kristalezko arrainontzia. Ez dakit noiz egin zuen klisk nire munduaren inguruko kristalak, noiz klask. Barneko ura kanpoalderantz isurtzeko, eta barruan, kristal pusketen artean, itotzen den arraina izateko". *Odol mamituak* gaixotasun mentalaren infemura jaitea da, baina errealidadera, lasaitasunera eta, batez be, biziteko gogora itzultzeko bidea be egiten da.

A. da personaia nagusia, bere ikuspuntutik kontetan dau istorioa, B.tik Z.ra beste hainbat personai agertuko dira 100 kapitulu laburren zehar hizkuntza zuzen, gordinean kontautu.

Bermeoako helduentzat idatzitako lehen eleberria da eta harrigarria gerta dakikegu, haur literaturatik holango nobela gordinera egindako jauziak. Autobiografikoa dala dinoenik dago, batetik, berak onartzen dauan

moduan eleberriaren hasikerea berak pasautako ilunaldi baten oinarrituta dagoalako, bizi izandako sensazioetan, egoerearen gogortasunean... agian be, Fisika ikasketak eginda daukazalako eta darabilen hizkuntza fisikoa dalako eta, oso ondo adierazoten dau A.ren gorputzak sufriduten dauan prozesua buru-galtze horretan: amildegia, suizidio pentsamentuak, orekaren bilaketea, sendabidea...

Eleberrian dana ez da sufrimentua eta mina, barre egiteko pasarte umoretsuak baditu: zoroetako kideen deskribapenak egiten dituan edota medikuntza aldatiboak zein ofizialaz egiten dauanean berba. Gatxa dirudian arren ez da bape be gatxa irakurteko, hizkera arina, erritmikoa darabil. Azpimarratzekoa da tarte batzuetan prosa erabat biluzik dagoala, baina beste batzuetan, eta erabilitako hainbat baliabideri esker (zerrendak, errepikapenak, irudiak

eta metaforak), musikaltasun delikadua lortzean dauala irakurketa arina eta gozagarria ahalbideratuz.

Alaine Agirre Garmendiak ez eban gai eroso aukeratu helduentzako narratiban bere *opera prima* dan eleberri honetarako, baina idazleak gaiari aurrez aurre heltzean deitso, zuzenean.


Ulegarriagoa egingo jaku bere olerki batean dinoana irakurrita: *Idazten dut neure burua sartu dudan kartzela honetatik eskapatzeko idazten dut giltzaz ixitako gelak eta komunak eta armairuak irekitzeko idazten dut ziega pareta-zuri hau urratzeko (haizea sar dadin behintzat amasa apur bat hartu dezadan) idazten dut barruan burmuina jaten ari zaidan zizare lodi hori aliketa batzuekin hartu eta erauzteko idazten dut*

**Alaine Agirre Garmendia**

**Odol mamituak**

**Elkar argitaletxea, 2014**

**180 orrialde**



ez dakit zertarako baina idazten dut.

**Karmele Beobide Urigoitia**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

**Aprilaren 19tik 25era**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 26tik maiatzaren 2ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Maiatzaren 3tik 9ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 94 433 33 33

**Areatzako Notarioria**

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzeako Ugauraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugautik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugautik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermibarri-Arriorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermibarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Benetako maitasuna ezerk ez dau apurtzen

Ohar honen bidez izeko Emilik gudan dauan garrantzia aita-tu gura dot. Oin dala pilo bat urte, oindino nobio ginala ezetu neban izeko Emili; hasikera-hasikeratik harremana oso ona izan zan. Urteak joan urteak etorri, harreman hori gero eta sendoagoa bihurtu zan. Urte honeetan ez dogu inoz gorabeherarik izan, eta berak asko babestu nau. Arteara joaten ginanean beragaz hainbat denpora pasetan genduan; hainbat momentu on, eta danak gogorazten dodaz oindino.

Andoni nire seme zaharrena-haurdunaldian ama hil jatan, eta Zeanurin bizi ginanez, han egon ginan jaio zan arte. Izeko Emilik 50 urte bete ebazan egunean jaio zan Andoni, eta urtero alkar zoriontzen ziran. Arteara biziten joan ginanean, urduri egon nintzan, bizimodu barrira zelan ohituko nintzan jakin barik, baina izeko Emiliren laguntzeagaz erraz egokitu nintzan bizimodu barrira. Gainera, lanera bueltau behar izan nebanean, izekoa Andoni

zaintzean hasi zan, eta horixe oparirik onena izan zan niretzat; trankil joaten nintzan lanera, nire semea maitasunez inguratuta ixten nebalako.

Osaba Marzelinok eta izeko Emilik asko maite eben Andoni, eta beti zaintzeako prest egoten ziran, gu lasai ibili ahal izateko. Bat-batean, ordea, osaba Marzelino zendu zan, eta izeko Emilik gogor egin behar izan eban aurrera urtetako.

Urteak aurrera joan ahala, izeko Emilik nire hiru semeak zaindu dauz, eta euren heziketan oso garrantzitsua izan da. Gustavo, seme bakarra zan, baina etxean hiru lehengusu euki ebazanez, askotan euren zainketan eta heziketan parte hartu eban, oso garrantzitsua izan zalarik. Nire semeak euren kabuz konpontzen hasi ziran be, ez eben galdu. Geroago, Gustavo ezkondu zan, eta Pili bere emazteagaz familia sortu eban, Markel eta Gaizka semeak eukita. Hiloba honek izekorekin bizi-poza ziran, eta harro sentiduten zan bere hiloba kutunakaz.

Pandemiak bizitza aldatu deusku, eta izeko Emilik asko garri eban aldaketea; lagunakaz

egotea eta kartetan egitea faltan botaten ebazan. Azken boladan ez neban ikusi, kutsatzeko bildur nintzalako eta arauak bete behar ziralako, baina beti egon da nire bihotzean.

Apirilaren 4an Gustavok izeko Emili zendu zala jakinarazo euskunean, etxeko bostok ebagita eta triste jarri ginan. Hainbat momentu etorri jakuzan burura; ikastolara eroaten ebazan momentuak, urteeretara joaten zanean, eta beste hainbat momentu ahaztuezin. Fisikoki ez gara ikusiko, baina beraganako maitasuna hain handia danez, betirako geratuko da gure bihotzetan. Hil eta bi egun beranduago, apirilaren 6an, hileta eleizkizuna egin genduan, etxekoakaz, lagunakaz, ezagunakaz eta maite eben personakaz, eta ziur nago bere gustuko agurra euki ebala.

Agur bero bat izeko Emili eta eskerririk asko gugaitik egindako guztiagaitik. Ikusi arte.

MERTXE EMALDI INTXAURRAGA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerironak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA



### LAB SINDIKATUA

### Maiatzaren Lehena, aldaketea da aukerea

**A**urten be, Maiatzaren Lehena testuinguru berezi baten dator. Krisi pandemikoa tarteko, sistema kapitalista neoliberalak bere esku daukazan baliabide guztiak erabili dauz herri langilea prekarizauz etekin handiagoak lortuteko. "Krisi guztiak ondo jatorkiez eta" holan, pandemia, sistemea bera dala erakutsiz... Egoera honetan, herri langilearentzat hain kaltegarria dan sistemearen ondorioak bistan geratu dira. Osasun krisia ei da baina osasun sistema inoiz baina ahulago dago, bere pribatizazioaren progresioa azkartu egin da azken 10 urteotan eta osasun publikoan egiten dan inbersioa jaitsi egin da nabarmen. Ondorioz, asistentzia ratioak gero eta altuagoak dira, asistentzia presentziala kolokan ipini dabe eta azken helburua sistema pribadua ezartea dala gero eta argiago dago. Ezinbestekoak diran gizarte zerbitzuak ez daukie personon zaintza bermatzeko behar beste baliabiderik, sektoreko langileak lan-baldintza txarrak eukiteaz gainera, ratio asistenzialak oso handiak dira, eta zaintza eremuko sektorea ia osorik pribatizata dago (instituzinoak diru publikoa esku pribaduetan ixten dabe gure zaintzaz arduratu daitezcan). Hezkuntzan, "antzekoparezido". Ratioak handiak dira eta sistema publiko osoan interinidadetarako sabaia jotzen dau. Industrian eta zerbitzuetan ERE eta ERTEak nonon...

Gure eskualdera ekarrita, enpresen itxiera saiakerak (GEA-Kelvion, esaterako...) eta honeri lotuta, eskualdetik egoereari aurre egiteko eskumen eta baliabide faltea topetan dogu. Espezialidade guztiak bermatuten dauan anbulategirik ez daukagu; holan, arratiarrok bailaratik kanpo joan behar gara. Aparte masifikauta dagoan hezkuntza sistemak gazteai lanerako urtenbide eskasa opatzen deutse eta kanpora jo behar dabe sarritan. Lan prekarioaren zabalkunde ikaragarria, lan duina eukan eskualde baten...

Egoereari aurre eginez, zerbitzu publikoetan eta langile publikoen mobilizazio eta grebak, Kelvionen itxiereari aurre egin deutsan langile eta herritarren erantzuna, enpleguaren defentsan egin diran ekimen desbardinak... Beste gizarte bat gura dauan zeozker errotuten hasi da eta Maiatzaren Lehena horren isla izan behar dalakoan dago LAB sindikatua. Erasoai erantzuna emotetik harago, Arratiatik Arratiarako alternatibak sortu behar dira, honeen oinarri, aldaketa bultzatzen dabilen herri langileak, burrukatzen daben langileak, ikasleak, gazteak, andrak, gizarte eragileak... Guk, danok batera, ibilbide bat jorratu behar dogu beste eredu bat opatuteko Arratiako hurrengo kimuai: bizitza duina bermatu gura dauan eredu marraztu behar dogu, eta Maiatzaren Lehenean, hain zuzen be, horixe aldarrikatuko dogu!

M1 aldaketea da aukerea!  
Zaintza, lana, bizitza eta herria!

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerok, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Brinean



Aurreko zenbakian ikusi genduan "galapan" berbearen antzeko esangurea daukan berbea dakargu oingoan: brinean. Aldaki honek biak be jaso doguz gure inguruan: prinean eta drinean (brinéan, prinéan, drinéan, ahoskatuta). Batuan, abian/abiadan edo abiaduran da. Zeozker arin-arin egiten edo pasatzen danean erabilten da; esate baterako: "...Eta hasi zan harria drinean botaten euriagaz nahaste" (Zeberion jaso). Prisaz edo abiadura handian dabilenari be halantxe esaten jako; adibidez: "Brinean joan da azken autobusa goatzeako asmoagaz".

# NETFLIX

## EUSKARAZ

[WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS](http://WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS)

EUSKARAZKO  
IKUS-ENTZUNEZKOEN  
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

## LUMATUTEN



## XABIER LAMIKIZ

## Sinplifikazioen garaia

**P**andemiak sortu deuskun aldarte pesimistea erlatibizau guran (hau da, gauza txarragoak dagozala gogora arazoteko), lagun batek galdetu eustan ea zein dan, nire ustez, gure bizitzan zehar gizarteak sufridu behar izan dauan gauza, une edo prozesurik kaltegarriena. Berrogeta hamar urte beteko doguz aurten. Galderari tranpa usaina hartu neutsan. "Ezkerraren heriotzea da gertatu dan gauzarik kaltegarriena", bota eban nik ezer esan aurretik. Ez ebilen erregimen komunisten desagerpenaz berbaz, argitu eustan, ondoren gertatutakoaz baino. "Ez pentsau errua merkadu ekonomiarik eta globalizazioari botaten deusadanik", gaineratu eban. Ez nengoala ados esan neutsan. Globalizazioak (haregaz zabaldu dira-eta deslokalizazioa eta lan-merkaduaren segmentazioa) langile mobimentua txikitu egin dau azken hamarkadotan, gehiengoaren

kalterako. Ezkerreko alderdiak, sindikatuak eta oro har langileak ez dira prozesu horren biktimak? "Langile mobimentua desegin dabenak ezkerreko alderdiak izan dira", bota eustan, "eta horren ondorio zuzena eskoieko alderdi populisten eten bako gorakadea da". Zelan leiteke hori guztia ezkerreko alderdien errua izatea? Ez neban piperrik be ulertuten. "Marxismoak nor edo zer kokatu izan dau beti sistema kapitalistearen gailurrean?", galdetu eustan. "Eta nor dago oin gailur horretan?" Orduan konturatu nintzan zertaz ari zan. Teoria marxistaren egokitzapena Estatu Batuetako unibersidadeetan hasi zan 1980ko hamarkadan. Langile mobimentu ahulduak klase burrukearen amaiera iragartzen eban. Klase burrukea indarberitu behar zan. Zelan? Talde zapaldu gehiagori abotsa emonez. Sexismoaren eta arrazakeriaren biktimak be kapitalismoaren biktimak ei ziran. Orduan hasitakoak gerora izan dau oihartzuna. "Badakizu nor dagoan oin gailurrean, ezta? Ez burgesia eta ez kapitala, gizon zuria (aberatsa zein pobrea) baino, eta harek sortutako patriarkadua". Sinplifikazioen garaian bizi gara.

## ZERTZEAN



## ALVARO RABELLI

**J**oxek, ondoko kaleko jostunak, medikurako hitzordua jaso berri du. Bizitza osoan ez du joan behar izan, baina aspaldi honetan nabaritu dituen ondoezek petrikiloaren aukira eraman dute. Noizbait beharko zen. Ez da oso pozik irten kontsultatik. Medikuek alzheimerak jota zaudela diotsunean ez da poztekoa, inondik ere ez. Batzuetan gauzak ahazten zitzaizkiola, horixe baino ez zuen nabaritzen, baina betidanik nahiko despistatua izan denez gero, ez zion horri aparteko garrantzirik ematen, adinaren kontuak izango zirelakoan. Baina, ahanztura alde batera utzita, atzamarren puntan izandako aldaketak bai jarri zuen atezuan. Zerbait ez zihoakion ondo. Esan daiteke Joxek burua galdu ahala, eta horrekin batera bizitza, sentikortasun berezia irabazi duela atzamarren puntan, lehen ez zeukan sentikortasuna. Izan ere, Joxe betidanik jostun ona izan da, herriko onena aukeran, eta diskretua, oso diskretua. Hain zen horrelakoa ezen, demagun prakak estutzearen, artaziak gizon baten hankartetik sartu behar zituen guztietan arin eta doitasun handiz egiten zuen bezeroa jostuna hortik zebilkola konturatu orduko. Berdinberdin egiten zuen bezeroa emakumezkoa bazen. Bizitza osoan bere eskuek ehunka gizon eta emakume, asko benetan ederrak, biluztu eta jantzi izan dituzte, baina hori egitearren ez du ezer berezirik sentitu izan,

## Jostuna

kitzikapenik ez, kilimarik txikiena ere ez, bere lanbidean sexua existituko ez balitz bezala. Lehengo egunera arte behintzat. Zeren, lehengo egunean, soineko bat egiteko oihala moztan ari zelarik, bere atzamarren puntetik deskubritu zituzten sentsazioek bete-betean garunean jo zuten, garunean eta beherago ere bai. Tul beltzaren gainean pasatzean, berau ferekatuz, atzamarrek derrepentean bizia hartu zuten. Soinekoa jantziko zuen neskaren titi oparo eta epelak marrazteari ekin zioten berehala. Borobil bat egin zuten astiro, titi bakoitzaren ingurua hari zuriaz eta Joxeren lerdez mugatuz, eta aski zabalda zela iruditu zitzaionean, atzamar puntetik titiburu irreal bateraino igoarazi zituen, astiro ere bai, Himalaiako otxomil horietako bat bailitzan. Hori egin ostean soinekoaren botoiak askatu zituen banan-banan, presarik gabe, burua hurbildu eta berau titi irrealen artean murgildu zuen. Ez zuen bertatik atera atzamarrek soinekoaren hankartera jaitsi ziren arte, berriro ahanzturaren orratzen ziztada mingotsak oihalean eta gogoan sentitu arte. Hala ere, ostielako orgasmoa izan zuen Joxek, bera horretaz gogoratu ez arren. Alzheimer madarikatua. Joxeri atzamarren puntetik beste gauza bat erakutsi zioten, bisexuala, edo agian benetako homosexuala izan zitekeela alegia. Aurrekoan gertatu zitzaion, gizon batentzako traje urdina josten ziharduenean. Batean atzamar puntetik labain egin zuten sorbalda gotoretatik ipurdiraino bizkarrean zehar. Joxek esku biak paratu zituen ipurmasailetan, estutze baino paratu ere. Hasperenak dendaren jabe egin ziren, tailerrarena eta ondoko ileapaindegiarena ere bai.

Sexu aukera horretan ez zuen inoiz pentsatu, bueno, pentsatu ote zuen ere ez zuen gogoratzen; beharbada bazen, baina, askotan ez zenez ezertaz oroitzen, nork daki.

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerre, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**B**ila joan barik be, iraganeko bonbak agertzen dira ezustean. Hori gertatu jakon Gotzone Sautua billaroztarrari: etxeko lonjako konponketa lanak egiten egoala, 1936ko gerrako lehergailu bat topau eban eta.

"Haga baten gainean metalezko zeozer ikusi neban. Hasikeran ez neban jakin zer zan baina atzeko alde ikusitakoan konturatu nintzan lehergailu bat zala". Ertzaintzari deitu eutsan eta ertzainak lehergailua ikusi ostean, Ertzaintzako Lehergailuak Indargabetzeko Unitatekoak (LIU) bertaratu ziran. "Eraikina hutsitu eben eta alboetako kaleak zarratu, inor ez pasetako. Lonja barruan hasi ziran lanean, bertan lehergailuaren garbiketa lanak egin ebezan jakiteko zer izan ahal zan eta ikusi ebenean ez zala obus bat, mortero-granada bat zala, furgonetan sartu eben. Furgoneta barruan metalezko kutxa baten sartu eben eta kordelakaz lotu" jarraituten dau kontakizuna Sautuak.

Lehergailuaren espoletea falta zanez, berez lehertzeko arriskua txikia zala esan eutsien ertzainak billaroztarrari, baina kargea eukala eta ezin ebalda gorde, lehertu behar ebela be jakinarazo eutsien.

Ezustean, kargadun lehergailua topau eben lonjako haga baten gainean, bota eta 84 urte beranduago. Lehertu ezean, inor konturatu ez arren, hor jarraituten dau kargeak eta.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

**agoa** hagin klinika  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zerbaitz 101  
R.P.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA  
Elexalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 62 - 608 664 018

**T ERROITZ OKA**  
Igomeko geroak  
Lanbideari Agertu III  
Igome

BEDIA

## Bediako Murtatza auzoaren ondoan, EEH planta bat egiteko proiektua dago

Usansoloko Gorosibai auzoan, Usansolo eta Bediako Murtatza auzoaren artean dagoan 93.000 metro karratuko lursail baten, Eraikuntza eta Eraispin Hondakinentzako (EEH) planta bat egiteko proiektua dauka Moyua enpresek. Horrek ekarriko dituan ondorioakaz kezkatuta, Gorosibaiko Auzo Elkartekoak planta hori ez gauzatzeko lanean hasi ziran eta laster, Usansolo eta Galdakaoko beste alkarte eta Murtatzako hainbat bizilagun batu ziran ekimenera RCD Hemen Ez! plataformea sortuz.

### Erredakzioa

Aprilaren 10ean, plantaren kontrako protestan 200 auto inguruk hartu eben parte eta mobilizazio gehiago egingo dituela emon dabe jakitera plataformakoak.

Igazko Gabonak aldera jakin eben Gorosibaikoak lursail horreek erosi ebazan enpresek EEH lantegi bat egiteko asmoa eukala. EEH lantegietan, eraitsitako eraikinen eta eraikuntzako hondakinak suntsitzen dira eta horrek zarata, hauts eta erreku-



Aprilaren 10ean egindako auto-karabana.

Argazkia: Binke!

tza gas asko sortzean ditu. Gainera, kamioi handien trafiko handia egongo litzateke. "Galdaketa txatarrak birziklatuko leukiez eta horreek gaixotasun larriak sortu leitekezan metal astunak daukiez" plataformakoen arabera. Plantaren eragina, Usansolo eta Bediako bizilagunak sufriduko leukie, batez be.

Lantegirako lekua ez jakie egokia iruditzen plataformakoai. Izan be, holango plantak egiten diranean bizilekuetatik urrun egoten dira, baina hemen ez da holan. Lursail-

tatik hurren dagoan etxea, Bediako Murtatza auzoko bat da, 50 metro-egongo litzatekena, eta auzune osoa, sano hur dago. Beste kalteen artean, lantegiaren jarduerak "hauts txapel bat" eragingo leuke, Bedia eta Usansolotik zabalduko litzatekena. Zahar egoitza bat be oso hur dago eta horrek egoiliarri amas arazoak ekarri leikiez. Trafikoari jagokonez, "orduro sei kamioi handien joan-etorria" egongo litzateke auzo erdi-erditik.

### Udalakaz hartu-emonetan

Proiektuaren barri jakindakoan, auzokoak Galdakaoko Udalagaz eta Moyua enpresegaz bildu ziran, baita auzoan holango lantegiazatearen kontrako mobilizazioetan hasi be. Udalak proiektua aztertu eta bizilagunen osasunarentzako kaltegarri bada, kontuan izango dabela agindu deutse.

Bediako Udalagaz be harremanetan jarri dira. "Talde politikoakaz egoteko eskatu deuskue. Batzarra pendiente dago. Udalaren jarkerea edo eretxia emon baino lehen gauzak aztertu behar dira" azaldu deutso BEGITURI Aitor Sorriketa Bediako alkateak.

IGORRE

## Bonodenda kanpaina aprila eta maiatzean zehar izango da

Ohiko Bonodenda kanpaina ipini dabe martxan Igorreko Udalak eta AME merkatarien alkarreak. Herriko merkataritza bultzatzeko helburuagaz, 1.800 bonu ipini ditue salgai. Aurreko urteetan baino bonu kopurua handiagoa da, dirulaguntza handiagoagaz %25etik, %33ra pasau da, eta atxikitutako komertzioak be aurreko urteetan baino gehiago dira.

### Erredakzioa

Maiatzaren 15era arte edo amaitu arte erosi ahal izango dira bonuak eta maiatzaren 31ra arte erabili ahal izango dira. Bonu bakoitza 10 euroren truke eskuratuko da baina 15 euroko balioa izango dau. Gehienez hiru bonu erosi daitezke persona bakoitxak. Salmenta Igorren erroldatutako jentearentzat apirilaren 15ean hasi zan eta besteentzat apirilaren 23an, Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:30etik 12:30era eta eguaztenetan 18:00etatik 20:00etara.



### Atxikitutako komertzioak

Bonuak hurrengo dendetan erabili ahal izango dira; Ainara Ki-

rolak, Aldeiturriaga Oinetakoak, Arrabike, Arratek, Arratia Infor-

matica, Axular Herriko Taberna, Belaustegui Joyeros, Bihotza Es-

tetika Zentroa, Bizarginak, Surya Estetika Zentroa, Haize Natura Estetika Zentroa, Decoración y Pintura Igorre, Dia Autozerbitzua, Doner Kebab Igorre La Bodeguilla taberna, Donibane taberna, Edur Zapata Konponketa, Egibe Edertasun Zentroa, Enar Kirolak (Maran Kirolak), Erroitz, Expert Arratia, Iru Deko Burdindegia, Beatriz Fruta-denda, Pino Fruta-denda, Garaje Felipe, Garden Igorre, Goloski, Grelmar, Hamburgueseria Ikusga-

rri, Ilestyle ileapaindegia, Iratxo Oinetakoak, Jubiladuen taberna, K2 Jatetxea (Batzokian), Kantabriko Arraindegia, Kili Kili, Kirru Ilea-paindegia, Klitz, Kukuma taberna, Lorane, Marrak Paperdenda, Muebles Igorre Altzariak, Mugarri Interiorismo, Nati ileapaindegia, Olaetxe Optika, On Egin, Orrie Paperdenda, Lanbreabe okindegia, Polittel, Rekalde Harategia, Sein, Troka, Txaparro jatetxea eta Zazpi Haizetara.

DIMA

## Repsol gidak Garena jatetxea saritu dau

### Erredakzioa

Repsol gidak Eguzki sariak banatu ebazan apirilaren 12an Donostiako Maria Eugenia antzokian. 96 jatetxe saritu ebezan guztira eta saridunen artean Dimako Garena jatetxea dago, Eguzki bat jaso eban Garenak.

"Garenak bere ibilbidea aldats gora hasi behar izan eban. Sano ekaitz gogorari aurre egin eta gero, atzenean eguzkia atera da! Mila esker lagundu gaituzuen guztioi, gure ondoan egon eta guban sinistu dozueno. Mila esker lan-

talde osoari, zuek zarie proiektu honen arnas. Baina batez be zorianak eta eskerrik asko Garenaren bihotzari, zu barik hau ez litzateke posible izango Julen Baz" adierazo eben Garenakoak sare sozialetan.



Julen Baz.

ARRATIA

## Ander Zuluaga: "Lotarako bakarrik kentzean diran bitxiak gurago ditu jenteak"

Zeanuriko Isidor Zuluaga bitxigile lanetan hasi zan 1950eko hamarkadan Bilbon. Bere andreagaz batera Maria Eugenia Gortazarregaz 1988an Galdakaon denda bat zabaldu eban. Ander eta Igotz semeak negozioa aurrera aterateko lekukoa hartu eban gero: Anderrek aitarena, tailerrean; Igotzek, amarena, dendan.

### Erredakzioa

Zornotzan beste denda bat be zabaldu, eta 2006an Eguzkilore bitxi marka sortu eban. Marka honeguz Bilbon, Donostian, Gasteizen eta El Corte Ingles batzuetan dendak daukiez.

Ander Zuluagak aitagaz ikasi eban ofizioa eta beste lan askogaz batera, berak egiten dau lan artisaua. Izan be, bitxigintzeak sasoi barrietara moldatzeko, mota desbardinak bitxiak eskaintzen ditu publiko desbardinera ailegetako; bitxi klasiko edo modernoak, artisauak, askotan bezeroaren urreagaz, eta lehengo bitxiak itxurea aldatu egiten deutsee bitxigileak. Eguzkilore markeak urtero ateraten dau bilduma barria.

### Lehen lehenengo jaunartzeetan eta erosten ziran bitxiak, baina gaur egun erlijinoak ez dauka lehengo indarra, ezta?

Gaur egun lehen jaunartzeak asko bajatu dira, baina ezkontzak oindino indar handia daukie guretzat. Jenteak jarraituten dau ezkontzen, eleizan edo udaletxean eta jarraituten dogu bitxiak saltzean. Ezkondu aurretik mutilak "eskaera-eraztuna" erosten dau eta erlojuren bat be saltzean da. Eta gero ezkontza-eraztunak. Ezkontza egunerako be

neskeak eta amak belarritakoak erosten dabez...

### Eskuz egindako bitxiak be saltzean dozuez, ezta?

Bai. Tailerrean bitxi artisauak egiten doguz, baina badagoz be beste bitxi batzuk maioristai erosten deutseguzanak. Danetarik dauka, eta gainera geure marka, Eguzkilore, ateraten dogu.

Hasikeran, Tiendas Oro kooperatiban sartu ginan. Espainiako estadu osoko bitxigileak osotuten eban kooperatibea eta batzuk hasi ziran euren bitxiak ateraten. Esate baterako, Yndalo, Almerian; Izarra, Lizarran; Sorian, Caballo soriano... eta gu be hasi ginan pentsetan bertoko zer atera. Probak egin genduzan eta ikusi genduzan eguzkilore oso geurea dala eta pentsau genduzan gure marka Eguzkilore izango zala.

Badagoz personak etorten diranak buruan idea bategaz eta idea hori harrapatzen saiatzen naz. Marrazki bat egin eta aurekontu bategaz erakusten deusat bezeroari eta onartzen badau egiten dot piezea. Edo personalizau be egiten doguz bitxiak. Badago jentea etorten dana bitxiagaz eta esaten dauana, "harria aldatu gura dot", esate baterako. Jente helduari gustetan jakoz gehiago bitxi personalizaduak.

### Ze tipotako bitxiak erabilten

### ditu gure inguruko jenteak?

Lehen bitxiak atenzinoa emoten ebanak izaten ziran eta urre horia erabilten zan. Holango bitxi asko dagoz kajoietan. Jenteak, momentu honetan urrea altu dagoanez, urre hori ekarri egiten dau eta guk egiten dogu balorazino bat. Ostean, horregaz bitxi praktikoagoak egiten doguz. Esate baterako urre zuriagaz solitario batzuk brillantetxu bategaz. Asko erabilteko bitxiak, apalagoak eta lotarako bakarrik kentzean diranak. Horreek dira gehien saltzean diranak gaur egun.

### Urtebete daroagu etxean sartuta eta bizitza soziala murriztuta daukagula. Horrek gitxitu egin dau bitxien salmenta? Ala kontrara, jenteak topau dituzte etxean bitxiak eta horreek moldatzeari ekin deutso?

Gauza biak pasau dira. Batzuek, mosukoa daroelako edo... itxi deustie bitxiak janzteari. Baina badago jentea ez dauana bidaiatu eta diru bat edo urrea daukana eta horregaz zeozer egin gura dauana; bitxi bat aldatu, eta erabilgarriagoak diran bitxi batzuk egin, esate baterako. Horri esker, apur bat konpensau egin da, baina igarri egin da bizitza sozialaren murrizketea eta bajatu egin da salmentea. 2019 eta 2020ko salmentak alderatu ezkeru ikusten da bajatu egin dirala, baina defendidu egin gara moldaketari esker.

Bitxiak saltzeako denpora guttian barriztuten egon behar zara. Beti pentsetan zer saltzean dan, ze gauza barri atera behar dozun, zer dagoan modan... eta apur bat euki behar dozuz be gauza merkeak, hau da zidarrezkoak eta beste batzuk diamanteakaz eta holan. Danerik behar dozu biziteko. Eta barriztu.

Guk esate baterako Eguzkiloren urtero-urtero ateraten doguz kolektino barriak.

### Bitxietan be modak egoten dira, orduan?

Bai. Gu urtero joaten gara Italiara, zer eroaten dan ikustera. Momentu honetan urre horia dago modan, baina gauza finak eroaten dira: katetxo bat edo bi fin-finak ikono desbardinakaz, esate baterako. Baita harri koloredunak be. Harria gehiago ikustea eta metala gitxiago, modan dago. Gazteai asko gustetan jakie hau.

Ha-ta guzti be, badago jente bat, behin bitxi bat erosi ezkeru, atemporala izatea gura dabenak. Hamar edo hogei urte berandua be erabiliko dabena.

### Internet bidez ondo saltzean dira bitxiak?

Zeozertxo igon da internet bidezko salmenta baina diru bat balio dauan bitxi bat ez da hain erraza internetetik saltzea. Azkenean jenteari bitxidendara etorri, ikusi, probau eta apurtxo bat guk orientatzea gustetan jako.

ARANTZAZU

## Laurogei lagun inguru batu ziran lan-esplotazino eta persona trafikoaren kontra



### Erredakzioa

Arratiako mobimentu feministeak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek deituta, Arratia osotik hurreratutako laurogei bat persona batu ziran apirilaren 6an Arantzazuko plazan, personen trafiko eta esplotazinoari txarrespena agertu eta zaintza sistema publiko eta duina eskatzeko.

Martiaren 23an Ertzaintzak hiru lagun atxilotu ebazan Arantzazun lan-esplotazino eta persona trafikoa leporatuta. Ertzaintzaren arabera, sareak Nikaraguan bilatzen ebazan andrak hemengo etxeko lanetan jarduteko. Hona etorritakoan, jakin arazoten jakien

10.000 dolarreko zorra eukiela eta zorra kentzeako, sareak bilatutako etxeetan egin behar ebela behar.

Bildutakoak alkartasuna adierazteko sarearen biktimari eta "arduradun judizialai, polizialai eta erakundeai galdetu eutseen "non dagozan andra horreek, zein baldintzetan eta zein erraztasun emongo jakiezan bizitza duina" izateko. "Persona trafikoa baldin badago da demanda dagoalako" gaineratu eban eta administrazioari kalidadezko zaintza lana bermatzeko baliabideak eskatu eutsezan. Zaintza lanak esentzialak badira, langileen eskubideak be bai. Horregaitik "zaintza sistema publiko eta duina" aldarikatu eban.

ARRATIA

## Etixerat-ek menuak salduko ditu apirilaren 24an

### Erredakzioa

Etixerat, preso politiko, senide eta errepresaliaduak sostengua emoten deusan taldeak, udabarrian Bazkaria etxera! Plater bete elkartasun ekimena prestatu dau dirua batzeako. Apirilaren 24an, bazkariak prestatuko dabez Diman eta Lemoan. Areatzan, Artean, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin aukerea egongo da eskatu eta menu horreek etxera eroateko.

Prezioa bardina izan arren, 15 euro, menu diferenteak prestatuko dabez Diman eta Lemoan. Pasta ensaladea, solomoa piperrakaz eta arroz-esnea Diman, eta baba gorriak eta postrea Lemoan.

Etixerat taldearen egoera ekonomikoa gero eta larriagoa da. "COVID-19a dala eta, aurten be ezinezkoa izango da alkartasun eguna betiko moduan ospatzea" eta "tarte luzean txosna barik ez dago modurik dirurik aterateko" jakinarazo dabe taldetik. Horregaitik ipini dabe martxan ekimen hau.

### Parte hartzeako

Bazkaria eskatzeko herri bakoitzean bertako telefonora deitu edo mezua bialdu behar da hila-ren 21a baino lehen.

Apirilaren 24an, Artean, 14:00etatik 14:30era jasoko da bazkaria udaletxe aurrean (600 389 055); Areatzan, ordutegi berean, Gudarien Plazan (688 879 713); Diman, 13:30etik 14:30era eskoletan (688 733 965); Igorren, 13:45etik 14:15era, Herriko Tabernan (699 919 085); Lemoan, 13:30etik 14:30era Gaztetxe azpian (656 799 612) eta Zeanurin, Kultur Etxe azpian 14:00etatik 14:30era (620 253 725).



Ander Zuluaga.

ARRATIA

## Ikurriñak ipiniz eta plazetan batuz ospatu eben arratiarrak Aberri Eguna



Areatzara hurreratutakoak.

### Erredakzioa

Aberri Eguna ospatuteko Arratia, Ubide eta Zeberioko etxeetako balkoietan ikurriñak ipini ebezan herritarrak eta herri batzuetako plazetan batu egin zan jentea. Pandemiari aurre egiteko neurriak dirala-eta, jentetzak batu ezin diran honetan partidu nagusiak modu desbardinean ospatu eben eguna.

EAJ-PNVk herritarri balkoietan ikurriñak ipinteko eskatu eutsen eta Aberri Batzarra egin eban Bilboko Euskalduna jauregian. Karguak baino ez ziran batu han. EH Bilduk eta Ahal Duguk babes-tutako Euskal Herria Batera egitasmoak barriz, herriko plazetan batzeako deialdia egin eban. 129 herritan urten ziran herritarrak plazetara. Arratian, Arantzazun, Areatzan, Diman, Igorren eta Lemoan alkarretaratzeak egin ziran; guztira 300 lagun inguru batuz.

Areatzan, Areatza, Artea eta Zeanurikoak batu ziran. Arteatik eta Zeanuritik oinez joan ziran martxan Areatzara, bertan hiru herrietako ekitaldi bateratua egi-

teko. Arteko plazan 20 bat lagun alkartu ziran eta Zeanurin 30 bat, Areatzara ikurriña, preso politikoaren aldeko banderola eta feminismoaren bandera moreakaz Areatzara joateko. Han, 90 lagun inguru batu ziran, konzentrazio ostean, manifestua irakurri, Arkaitz Estiballesek bertso bi bota eta *Txoria txori* abestu eben danak batera.

### Politika egiteko modu bi

Andoni Ortuzar EAJ-PNVko Euzkadi Buru Batzarreko presidenteak, autogobernua indartzea dala helburua esan eban Bilbon, "Gernikako Estatutua betetea eta Euskadirentzat eskuduntza guztiak lortzea", hain zuzen be. Euskal Herria Batera egitasmoak barriz, bateratasuna areagotzeko herrigintzea egin gura dau eta proiektu politikoetan oinarritutako komunitatea trinkotu. Horretarako "zelango aliantzak eta erreferentziak" behar diran aztertuten dauz "Euskal Herri bateratua irudikatzen daben ikur, ereserki eta ekintzak sustatzeko".



Dimara hurreratutakoak.

DIMA

## Errezitaldia egin eben Diman 1936ko gerra eta gerraosteko biktima eta errepresaliaduai aitortza egiteko

Kanthoria bibolin-jole bikoteak girotu eban apirilaren 17an, *Memoria eta artea, aitortzarako bidea* errezitaldia Diman. Gerrea eta gerreak dakarren sufrimentua gai hartzean dituen autore ezagunen testuak irakurri eta kantuak, koplak eta bertsoak kantau ebezan ekitaldian parte hartu ebenak.

### Erredakzioa

Arte Ederren Fakultadeko artista bik Dimako memoria historikoaren gaineko liburu bat egin dabe etxeetan bananduko dana. Txumuluxueta alkarteko Manu Aurrekoetxeak eta Itziar Espartak aurkeztu eben 1937ko apirilaren 7an, arrastiko 17:15ean Dima bonbardeau ebela gogora ekarri eban ekitaldia.

Kanthoria taldeak emon eutsan hasikerea ekitaldiari eta gero, Arratiako Musika Eskolako Dimako ikasleen txandea izan zan. Euren musikea entzun ostean, 2016tik herriko memoria historikoa berreskuratzeko lanetan dabilan Txumuluxuetakoak hartu eben berbea, "Diman, beste leku askotan legez, isilean gorde dira gerra eta gerraostekoa. Familia transmisinoa be eten egin da. Gure herriko isiltasun mingots horri, berbea ipini gura izan deusagu" esan eban Aurrekoetxeak.

Espartak, bere aldetik, Nazi-noarteko Zuzenbideak biktimai errekonoziduten deutsezan eskubideak ekarri ebezan gogora: egiaren ezagutzea, erreparazio morala eta justizia egitea eta horreen bila, hasikeran Txumuluxueta bakarrean eta gero udalagaz batera, herriko biktimen erreparazio morala behintzat, lortu dabela esan eban. "Harro gagoz egindako bideagaitik. Harro jakin dogulako gertatu zana zer izan zan, harro biktima eta errepresa-

liaduen izenak jakin eta euren gana edo euren familiengana heldu garalako. Eta harro herriko udal desbardinakaz izan dogun alkarlanagaz".

Ondoren, Josu Gorospe Dimako alkateak, "bizitza hobe bat izateko, gogoratu gura dogu" esan eban eta eskerrak emon eutsezan Txumuluxuetari egindako lanagaitik eta topaketetan parte hartu ebenai. Baita, Izaro Sola eta Juan Pablo Orduñez "Mawa" artearen bidez Dimako memoria jasoten dauan *Hitza, memoria, errebotea, oihartzuna* liburuaren egileai.

### Errezitaldia

Mikel Laboaren kantu baten ondoren, hasi zan errezitaldia. Tere Albizua izan zan lehenengoa Lauaxetaren *Agur Euzkadi!* poema irakurritz. Ondoren, *Arratiar soldau baten Kubako ametsa* irakurri eban Joseba Espartak. Miren Agur Meabe eta Mikel Zarateren poema bana irakurri

eben Amaia Gotik eta Irati Aldazabalek, hurrengo hurrengo. Eta Xabier Etxebarriak Dimako alkate izandako Mariano Bilbaoren koplak hunkigarriak kantau ebezan gero. Ondoren, Bertolt Brecht-en poema bat irakurri eban Bizkonde Auzmendik eta Rafa Ugaldek bere poema bat. Leire Petralandak, Ingebor Bachmann-en testua eta Bihotz Gorospek *Itziarren semeak* kantuagaz emozinoari beste maila bat igon arazo eutsan.

Poemak eta narrazio liburu batzuen zatiak irakurten jarraitu eben Jose Antonio Aurrekoetxeak, Abel Ariznabarretak eta Tere Uribe-Etxebarriak. Ibon Izak ekitaldirako beren-beregi egindako bertsoak bota ebezan. Gero, Olatz Artetxek, Haizea Ziarrustak eta Maitane Izak jarraitu eben irakurketeagaz eta Eñaut Elorrietaren kantu bateagaz amaitu zan errezitaldia.

Errezitaldia, Txumuluxueta alkarteak, Dimako Udalak eta Abizarie alkarteak antolatu eben.



Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112

Publizidadea: 649 979 115

begitu

✉ [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) 🌐 [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## IGONE ETXEBARRIA

# Labayru Fundazinoko zuzendari barria da Igone Etxebarria bediaztarra

Labayru Fundazinoko zuzendari ordea izan da Igone Etxebarria atzen 12 urteotan, eta martian, ordura arte Adolfo Arejita eukan kargua hartu eban.

Igone Etxebarria Zamalloa (Bedia, 1962) 1985ean hasi zan Labayrun beharrea, Euskal Filologia ikasketak amaitu ebazanean. Gero ETBn egon zan zuzentzaile eta euskera arduradun 1988tik 2002ra. Horren ostean, barrero Labayrura bueltau zan. Eusko Jurlaritzan Euskara Sustatzeko Zuzendari be izan zan 2005tik 2007ra eta Labayruko zuzendariordea 2008tik. Euskaltzain urgazlea be bada 1996tik.



Igone Etxebarria.

## Erredakzioa

**Bizkaieraz idazten dogunok Labayru hiztegia daukagu erreferente eta bertan begiratzen dogu ea berba bat dakarren ala ez, erabili ahal izateko. Beste batzuentzat Labayru euskaltegi bat da; Etnografia be landuten dau... zer da Labayru?**

Labayru 1977an sortu zan Labayru moduan baina etnografiako lanak eta ikastaroak aurretik hasita egon ziran. Sortu zan hutsune bat egoalako gizartean. Izan be, nire moduko jente askok, nahiz eta ikasiak izan, ez geunkan euskeraz ikasteko modurik, orduantxe hasi ziran lehenengo ikastolak eta.

Jente euskaldunari eskolatzeko modua emoteko, eta batez be, euskera dakianai bere erregistroa apur bat sendotuteko, norberaren erregistroan harrotasuna hartu eta hori idatzira eroateko eta irakurmena sustatuteko asmoagaz sortu zan. Ordurik hona gauzak asko aldatu dira eta gauza asko pasau dira bitartean. Gora-beherak. Gauza batzuetan gora eta beste batzuetan behera egin dau Labayruk, batzuetan aurrera eta beste batzuetan atzera. Momentu honetan gauza asko egiten dira Labayrun, baina, neurri baten, hasitako bidetik jarraitzen dogu.

Euskaltegia da, ze euskerazko eskolak emoten dira, nahiz eta gaurko ikaslegoa guztiz aldatuta

dagoan. Gero zerbitzuak daukaguz, itzulpenak eta erabilera planak, esate baterako.

Ikerketeagaz lotuago, hiztegi-gintzan eta lexikografian jarduten dogu. Labayru hiztegia, zuk esan dozun moduan, arau emoile edo eredu emoile da. Arautzen dau berbaz erabilten doguzan formak idatzira zelan ekarri. Bizkaieraz idatzi gura izan ezker, zubilana egiten dau, berba batek bizkaieraz ze forma daukan eta horren parekoa batuaz zein dan azalduz. Lexikografia da beste atal bat; Gramatika beste bat...

Beste arlo bat da Etnografia, herri ondarea esaten deusaguna. Apur bat bizimoduagaz lotuta dagozan tradizioak, bizimoduak, eta kulturearen transmisioa da hori. Bizimodua hain arin aldatzen da! Gaur egun aldaketa handiak egiten dira arin eta sarritan ez dago denporarik kontetako zelan izan diran edo zer izan diran. Horreek jasoten ibiltzen gara eta, hurrengoai transmitiduteko, bitartekoetara bihurtzen.

Gitxi gorabehera horreek dira landuten doguzan arloak. Gero dokumentazio zentro inportantea dago. Liburutegia, hemerrotekea aldizkari askogaz... argazki, bideo, papeleria txikerra (pegatina, foileto, kalendario...), kartelak... Era askotako formatotako gauzak dagoz bertan.

**Zeintzuk dira zuzendariak egin beharreko lanak?**

Oin arte zuzendaria Adolfo Arejita izan da, baina zuzendariak gainera, bosteko talde batek daroagu ardurea eta ni be talde horretan egon naz. Arejita itxi dauanean

**Nik argi ikusten dot**

**batez be euskaldunen**

**artean zelango saltoa**

**dagoan ahozkotik**

**idatzira**

ni parau naz buru. Hor aldaketa da bera ez dagoala eta ginetik inor ez eukitea. Eta ardureari ja-gokonean be, azkenengo berbea zeuk daukazula.

Lan karga aldetik pentsetan dot antzera izango dala taldean egiten dogulako lan.

Zuzendaritza taldean arlo buruak dagoz: Euskaltegi arduraduna, itzulpenetako arduraduna, ondareko arduraduna... Ardurak banandu egiten dira eta danon artean hartzean doguz ebatziak.

Zuzendariaren lana da, proiektuak bideratzea eta horretarako dirua lortu, ze gu Fundazio bat gara, ezin dogu dirua pilatu eta gorde. Urtean urteko aurrekontuari aurre egin behar jako; eta horretarako proiektuak egin behar dira eta proiektuok saldu; hau da, nok ordaindu topau. Alderdi hori landu behar da etenbarik: beti gauza barriak sortzean eta honeri edo besteari opatzen. Hori da arloetako bat.

Labayrun 40 langile gara eta hori hornidu egin behar da. Danentzako lana bideratu, koordinatu eta holango gauzak be egin behar dira.

Eta gero alderdi instituzionala dago. Guk erakundeakaz lankidetzarako hitzarmenak daukaguz; Jurlaritzegaz, Bilboko Udalagaz eta beste udal askogaz. Lan horreek aurrera atera behar dira, kudeatu eta jarraipena egin. Baita, lankidetzak bilatu be: honegaz eta besteagaz egon, besteak zertan dabizen ikusi, kolaboratu... Holangoetan entreteniduten gara.

**Arejitagaz urte askoan lan egin arren, zuk zeure estiloa ekarriko dozu, ezta?**

Hori ez dakit, ez dakit igarriko dan ala ez. Gitxi-asko danok daukagu baxotzak bere estiloa, hori bai. Eta gero, baxotxari toketan jakon sasoiaren ezaugarriak dagoz. Ze oin, pandemia dala-eta, beste egoera baten gagoz. Oin dala urte bi egon edo oin egon, gauzak diferente ikusten dira eta horrek be baldintzatu egiten zaitu. Ez da bakarrik zuk gura dozuna,

moldatu egin behar zara dagoanera eta.

**Zelan eragin dau pandemiak?**

Eragin handia izan dau. Guk kontuetan beherakada euki dogu, baina aldi berean izan da oso arraroa dana. Ze gu konfinatu ginduzanean martian, gu konfinatu ginan baina danok jarraitu genduan beharrea etxetik, online egiten genduan eta aldi baterako konpondu ginan. Amaitu zan kursoa; kurso guztiak, eskola guztiak, proiektu guztiak dana joan zan aurrera, baina gero luzatu egin zan kontua eta hor etorri zan guretzako kaltea. Uda partean bajoia igarri genduan.

Gero kursoa hasi zan eta beste esparruetan ez, baina eskolan aurre beste ikasturte batzuetan baino ikasle gehitxoago euki doguz. Ez dakit zergaitik. Gauza batzuetan gora eta beste batzuetan behera egin dogu. Oso urte arraroa izan da eta asko eragin deusku. Aurten bagoaz burua apur bat altxetan eta bagoaz urteari be itxurea emoten, baina kontuz-kontuz, ea edozein momentutan pausu bat atzera egin behar ete dan bildurragaz.

**Aurrera begira nondik joko dau Labayruk?**

Aurrera begira gurako geunke proiektu batzuk sendotu. Hutsune batzuk ikusten dodaz. Nik argi ikusten dot batez be euskaldunen artean zelango saltoa dagoan ahozkotik idatzira. Ahoz daki jenteak gero idatzira pasetan danean beste erregistro batera pasetan da, askoz be pobreagoa. Aldi berean ahozkoa egiten dau baina ez dau ahozko erregistro landua egiten. Hor desoreka bat dago eta uste dot zeozer egin beharra dagoala, baina oindino inork ez dogu asmatu zein dan horren konponbidea.

Herri kulturean be badago zer erakutsi. Gauza asko galdu dira, baita oin dala 5 urtekoak be. Kulturearen transmisioa be bada-goz zer egina. Esate baterako, etxe barri bat egiten da edo poligono barri bat eta ipinten deusie izen



bat, demagun Txoritoki, landa horreek lehen beste izen bat euki dabenean, Iturribaso berbarako, han iturri bat egoalako. Gauza horreek penea emoten dabe. Eta horretan lan asko dago egiteko.

**Dakigunetik ez dakigunera zubilana egiteko sortu zan Labayru, baina oin, euskaldun guztiak alfabetatuta dagoz. Egoera honetan, bizkaiera bitarteko bat ez dan honetan, zein da bizkai euskerearen zentzua?**

Bizkai euskerea izenari kendu zeinkio bizkai berbea, ze azkenean euskerea da. Hemengo euskerea be batua da, edo izan behar leuke. Guk ekarri egin behar dogu gure euskerea, batura.

Nik ez dot ikusten oposizino moduan. Baina batzuetan, jentek gura dau bera identifiketan dan hori erakutsi. Eta orduan txokokerietara jotzen dogu. Ba ez mutur bata, ez bestea. Gauzak bere karrilera ekarri behar dira eta zubilana egin zentzu horretan. Zuk batuaz berba egiten dozunean zergaitik ez dozu esango galapan etorri zarala? Danok esan behar dogu "korrika"? Ba ez! Hori hizkuntza pobretutea da. Korrika moduan, galapan, atxixketan, arin-aringa eta karraderan erabili behar dira. Horreek danak ekarri eta erakutsi behar da horreek esatea be batuaz egitea be badala. Prestigiau egin behar da. Ze hori be euskerea da eta hori barik...

Baina, etxetik dakiguna, zelan inkorporau? WhatsAppetik esaten dogun moduan idazten dogu, baina horrek ez dau balio idatzi baterako. Oindino holango desorekak ikusten dodaz. Herriko jaietako karteletan, asko ikusten da, esaten dan moduan idatzitakoak, "jaxek" esate baterako, eta batzuek uste dabe zenbat eta aldenduago, jatorragoa dala. Baina gauza bakotzak euki behar dau bere lekua eta jakin behar da zein dan.

Zuk etxeko euskerea lantzean badozu, batuara pasatea ez da ezer; deusut-etik dizut-era pasatea ez da konplikazioa. Zeurea ondo badakizu, baina beti ez da holan.

**Gizartea arin aldatzen doa eta hori ikusten da hizkuntzan be.**

Bai. Hemen 60 urtean joan da nekazaritza bizimodua, esate baterako. Non dago ganadua etxeetan, baserrietan? Korta guztiak txoko bihurtu dira. Ortuak be etxe ondokoak baino ez dagoz, justu-justutxo, etxean jubiladu bat badago, entreteniduteko. Baina hori dana joan da eta ez dira hainbeste urte.

Horren moduan, herriak. Oingo Bediak, eta oin dala 20 urtekoak ez dauka zerikusirik. Lehen dana zan landea, oin etxeak dagoz, pisuak... dana da bidea argiagaz, saneamentuagaz, lehen estartak ziran lekuetan. Bizimodu eta ohi-turak be asko aldatu dira. Lehen dana zan eleizea, eleizako erri-tuak, familia, familia batzea ospakizunetan... hori dana joan da. Gaur egun gainera, lau lagun baino ezin gara batu, eta eurak be distantziagaz eta ahalik eta denpora gitxien egoten gara batera.

Dana aldatu da. Familia klaseak, familiako jente kopuruak... Gaur egun nok ez dauz egiten lau-bost biaje urtean nonora? Lehen herrian egiten zan bizimodu, alkartasun gehiago egoten zan.

Eta jarduerak joan ahala, izenak be desagertzen dira. Nekazaritza-tako tresnak eta jarduerak desagertzean, izenak be galdu egiten dira. Batzuk joan eta beste batzuk etorri. Oin informatika eta koronabirusaren terminologiak dakiguz. Gauza bakotzak berea dakar. Begira, igaztik hona koronabirusagaz zenbat berba sartu, aldatu eta moldatu diran. Oin etxetik egiten da dana: ikasi, behar, erosketak, gimnasia... Lehen hori ezin zan

ezta pentsau be egin.

Jente edadekoak esaten dau lehen zelan egiten zan auzolana eta kuadrillak, guztiak batuta, egiten ebela behar lehenengo baten soloan eta gero bestearnean, giro onean. Oin individualistak gara, bakotzak egiten dauz bere gauzak.

**Eta zuek lehengo bizimodu ha jasoten dozue, lekukotasuna egon daiten.**

Hori da. Edadeko jenteari jasoten deusagu, etenbarik. Oin dala 20 urteko jente edadekoak eta oingo jente edadekoak esperientzia oso diferenteak bizi izan dabez eta. Gerra aurreko giroa oso diferentea zan, gerran edo gerraostean jaio diranak ezetu daben giroarean aldean. Preguntetan deuseguz eskola denporako ohi-turak, ikasketak, kantuak, jokoak... eta dana da diferentea. Eta ordu-ririk honakoa pentsau: diktadura denporan, demokrazia hasi za-

nean... Eta mende honetakoak. Dana aldatzen doa, baina azkene-nengo urteetan aldaketak gero eta arinago izaten dira. Internet sortu zan eta horrek buelta bat emon euskun, baina gero etorri dira telefono mobilak eta urte batetik bestera topau gara danok daukaguzala holango telefonoak, danok funtzionetan dogula telefonoakaz. Eta lehen telefonoa telefonoa zan, baina oin argazki kamarea, mapea... ordenagailu bat da. Eta horrek aldaketa asko dakar danean.

Hemen Bedia, lehenagoko jentek euskeraz berba egiten ebanean, "zu nongoa zara?" eta "ni Kolazinokoa" esaten eban. Kolazino hori jente gazteak badaki esaten zala, baina esan inok ez dau egiten, ze ez da agertzen inongo karteletan. Eta idatzian zer agertzen da, ba Bedia, eta Bedia-gaz geratzen zara.

**Eta zelangoa izango da hamar urte barruko Labayru?**

Hori ikusteko dago. Aurrera begirako helburu batzuk badaukaguz ipinita, ze Plan Estrategiko bat egin zan oin dala 6-7 urte, eta gero barrizta egin genduan. Gure helburuetako bat gizarteagaz bat egitea da; preminak non dagozan ikusi eta preminai erantzuteko proiektuak egin Labayrun. Horrek be guri aldatu arazo egiten deusku.

Lehenago argitalpenak eta liburua egiten genduzan. Gaur egun egiten da oindino, ze papalak bere pisua dauka, baina gehiago da ikus-entzutekoa. Transmisinoa, zuzenago egiten dogu, gauzak pildoretan erakutsi, sareetan ipini, errazago konsumiduteko moduetara jo. Nik pentsetan dot guk oindino fondo handia daukagula eta fondo hori gizarteratzen eta handitzen badaukagula zeregina.

# Laburbira

Euskarazko film laburren XVIII.zirkuitua - 2021  
Apirilaren 26tik maiatzaren 30era  
[www.topagunea.eus/laburbira](http://www.topagunea.eus/laburbira)

 <b>ATERPEAN ATERI</b> Ruben Crespo	 <b>NIGANDEK</b> Imanol G. Gurrutxaga	 <b>GAME OVER</b> Iñaki Diaz Polacino
 <b>ILUNABARREAN ESAN</b> Kahier Vallina	 <b>BABARRUN TXAPELKETA</b> Andrés Iñigo de Medineta, Julen de la Serna	 <b>DATSEGIT</b> Aitor Arruti
 <b>NIRE EGUNEROKO MAITEA</b> Eduard Castagnet, Manex Puchá, Ximena Puchá	 <b>AGUR</b> Iñigo Acha Gómez	

TOKIA: **Igorreko Kultur Etxea**

EGUNA: **Aprilak 30, barikua**      ORDUA: **19:00**

ANTOLATZAILEA: **Zertu Kultur Elkartea/Igorreko Udala**



## PELOTEA

### Danel Elezkano eta Oier Etxebarria finalaurreetan



Danel Elezkano.

#### Erredakzioa

Elezkano II.ak eta Zabaletak sailkapeneko lehenengo postuan amaitu eban Binakako Txapelketako ligaxkea 11 partidu irabazita. Hilaren 17an, hiru finalaurretako lehena jokatu eban Mariezkurrena II. eta Altuna III.aren kontra Iruñean. Elezkanok eta Zabaletak erraz irabazi eban partidua 22-7ko emaitzeagaz.

Promozino Mailako Txapelketan be, Oier Etxebarria Igorrekota eta Salaberria sailkapeneko lehen postuan sailkatu ziran, ligaxka osoan partidu bakarria galduta. Hilaren 16an, hiru finalaurretako lehena jokatu eban Zabala eta Tolosaren kontra Azkoitian. Hasiarik aurretik joan ziran arren aurkariak markagailuari buelta eman eta 22-21 galduta eban. Sustu itzela hartu eban partidua 21-20 galtzean joiazanean Zabalaren pelotakada batek Salaberriaren belarriaren atzekaldean jo eban.

## PELOTEA

### Ekhi Ziarrustak Bizkaiko Banakako Trinketeko finala jokatu dau

Bizkaiko Kluben arteko Binakako Txapelketako eta Banakako Trinkete Txapelketetako finalaurrekoak dabiz jokatu eban Dimako pelotariak.

#### Erredakzioa

Trinketean, 18an, Bizkaiko Banakako Trinkete Txapelketako finalaurrekoak jokatu ziran Abadiñon. Gazte mailan, Xabier Rekaldek galdu egin eban Arroitarren kontra 35-34. Nagusien 1. Mailan, Txumuluxueta klubeko Ziarrusta anaiak jokatu eban: Lur Ziarrustak galdu egin eban Asier Aspurren kontra 40-15 eta Ekhi Ziarrustak irabazi egin eban bere partidua 40-15. Beraz, Ekhi Ziarrustak, maiatzaren 2an jokatu dau finala Abadiñon.

Nagusi mailako Trinketeko

Banakako Txapelketan Ziarrusta anaiak final-zortzirenetan sartu ziran. Finalaurrekoetara ailegetako, final-laurdenetan Ekhi Inhar Ugarteri eta Lurrek Aitor Arabiourrutiari irabazi eutsen. "Partidu bietan faboritoak gure aurkariak ziran, baina biok lortu genduan partiduak aurrera ateratea" azaldu deutso BEGURI Lur Ziarrustak.

Gazte mailan, Xabi Rekalde final-laurdenetan sartu zan, baina honek be partidu gogor bat jokatu behar izan eban finalaurrekorra sailkatzeko, Elorzeri 30-29 irabazita.

#### Kluben arteko Binakako Txapelketea

Bizkaiko Kluben arteko, Gazte mailako Binakako Txapelketako finalaurrekoa jokatu zan Zeanurin apirilaren 16an eta Xabier Rekalde Dimakoak eta Orozkoko Joritz Arbaizak lortu eban finalerako txartela, Leako bikoteari, hau da, Munitibargo Koldo Enbeita eta Zeanuriko Danel Beitiari, 22-12 irabazi ostean. Xabier Rekalde Orozkon jokatu eban, Txumuluxuetak lagata.

Beste finalaurrekoan Orozkoko beste bikote bat gailendu zan eta berau izango da Rekalde eta Ar-



Lur eta Ekhi Ziarrusta erdian.

baizaren aurkaria.

#### Bigarren mailatik lehenengo mailara

Datorren urtean, Bizkaiko Kluben arteko Txapelketan, maila bat gora jokatu dabe Joko Alaik eta Txumuluxuetak. Bigarren mailatik lehenengo mailara pasauko dira eta ginetik maila berezia baino ez dabe izango. Zeanurikoak plaza bi eta Dimakoak bat izango dabe maila horretan.

## FUTBOLA

### Arratiak atzen hiru partiduak irabazi ditu

#### Erredakzioa

Arratia taldeak ligako bigarren faseko hiru partidu jokatu ditu apirlean eta hirurak irabazi ditu. Hilaren 4an, Berriozar taldearen kontra 3-0 irabazi eban Igorreko Urbieta zelaian; hilaren 11n, Ita-

roa Huarteren kontra 0-2 irabazi eban etetik kanpo eta jokatu-tako atzen partidua, apirilaren 18koa, 3-1 irabazi eban Arratiak Logroñesen kontra, etxean. Atzen partidu honetan husna heldu ziran atsedendira, baina bigarren zatia hasi eta laster 3-0 parau ziran markagailuan arratiarrak, Zuriñeren gol bi eta Arrateren gol bateri esker. Logroñesek gero gola egin eban baina ondo eutsi eutsan emaitzeari Arratiak partidua amaitu bitartean.

Sailkapenean bederatzigarren postuan dago Arratia 18 puntugaz.

Datorren partidua Atlético Revellín taldearen kontra jokatu dabe etetik kanpo, apirilaren 25ean goizeko 11:30ean.



Olaitz Arroyo igorretarra eta Maddi Ayarza dimoztarra beroketa ariketak egiten Logroñesen kontrako partiduan.

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tf. 94.657.70.03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**Bihotza**  
Estetika Zentroa  
Manikura  
Pedikura  
Depilazioa  
Solanum-a  
Vika  
Lehendakari Agirre, 2 beheko - 2D - Igore - 689 786 062

**2020ko errenta aitortpena egitea**  
Aholkularitza  
Lekua: BBVA Areatza  
Aurretiko hitzordua  
699 120 827

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Golder 666 58 20 06  
Pazuzeta poligonoa, 10 IEMOA • beerediak@gmail.com

**begitu** 18  
arratia ubide zeberio

**BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!**

**2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAIK!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko enpresen aldeko aldiak euki dalgun. Baina horretarako balabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bemez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari eskalduna babesteko dozu?

Hori egiteagatik **Gareta** jatearen lagun bierentzako degustazio menua zuzetatuko dogu apirlean.

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta baldu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
Aukeratu urteko kuota:  35€  55€  75€  15€

\*Gareta Begituren produktu honek helduko jitzuz eberra daban.  
Edo e-mailaz, baldu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!

## IKASTAROAK

## Udal ikastaroak antolatu ditu Igorrek

## Erredakzioa

Umeentzako *Akrobazia aurreratuak*, *Gazteentzako akrobaziak*, *Txi-Kung*, *Yoga*, *Hipopresiboak* eta *Literatura tailerrak* osotuten dabe eskaintzea. Ikastaroak aurrera eroateko gixienez 6 laguneko taldeak osatu behar izan dira.


Akrobazia aurreratuak 7 eta 12 urte bitarteko umeentzat da eta ordutegi bi eskaintzen dira martitzen arrastietan. Egun berean, iluntzean, 13 eta 30 urte bitarteko gazteentzako akrobazia ikastaroa egongo da taldea sortu ezker. Txikung astelehen arrastietan eta yoga martitzen eta

eguen goizetan. Hipopresiboak barriz, eguazten arrastietan izango dira eta ordutegi bi eskaintzen dira. Literatura tailerra hileko lehen astelehenean izango da.

Apirilaren 23an, posta elektronikoz jakin arazoko jakie parte hartzeako izena emon dabenen artean, plaza daukienai. Izan be, plaza kopurua baino gehiagok izena emoten badabe zozketatu egingo dira plazak.

## Kiroldegan be ikastaroak

Igorrek Kiroldegiak lau ikastaro honeek antolatu ditu: Edadekoentzako gimnasia, Pilates, GAP eta Spinning, hain zuzen be.



## KOTXEPIN

## Lemoak badauka bere Kultur Etxea

Obrak 2021eko apirlean amaitu dira eta hilaren 24an ate irekierea egingo dabe herritarrai etxea erakusteko bisita gidatuen bidez. Prozesu parte-hartzailea eta luze baten ondorioa da Kotxepin Kultur Etxea eta apirilaren amaieran hasiko da funtzionamentuan, ate irekien egunaren ostean. Lehenengo bisita gidatua Kotxepin Bengoetxearen familiakoak eta Kultur Etxearen diseinuan parte hartu dauan talde eragilearentzat izango da.



Kotxepin Kultur Etxea.

Kotxepin izan zan, andra honek egindako lanagaitik. Batez be euskerearen alde egin eban behar. Talde eragileak ebatzi eban hori izango zala gure Kultur Etxeak hartuko eban izena".

Kotxepin Bengoetxea Etxebarria (1949-1987) lemoaztarra zan eta lan handia egin eban Lemoan euskerearen eta kulturrearen alde Euskal Herri mailan.

## Prozesu luzea

2012an hasi zan Udala Lemoak ebazan aisi eta kultura espazioak baloretan eta ikusi eban herrian egozan alkarte eta egiten ziran ekintzetarako leku faltea egoala. Espazio barri baten bila hasi ziran eta 2016an Bizkaiko Gotzaindegiagaz abadetxearen 40 urteko lagapena sinatu eban, Kultur Etxea egiteko asmoagaz.

Urte berean, Udaleko aisialdi eta kultura zerbitzuak, Kultur izeneko proiektua abiatu eban Maraka taldearen laguntzeagaz, aisialdi eta kultur zerbitzuak berantolatu eta abadetxeari ze erabilera emon eta horretarako ze espazio behar ziran aztertuteko.

Lan saio asko behar izan ebazan talde eragileak etxearen espazioa lemoaztarren kultura preminetara moldatzeko. Apirilaren 24an ikusi ahal izango da lan guzti horren emaitza eta egun horretatik aurrera martxan izango da Lemoako Kotxepin Kultur Etxea.

## LIBURUA

## Auzo bizitza Diman 1800-1936 liburuaren aurkezpena Diman

## Erredakzioa

Dimako Antzasti-Euskaldunon Etxea museoak argitara emon dau Abel Ariznabarretaren atzen lana. Liburuaren aurkezpena Dimako eskolako kamaran izango da apirilaren 23an, barikua, arrastiko 18:00etan.

"XIX. mendearen hasikeratik 1936ko Gerra Zibilaren hasikerara mugatzen dan epean aldaketa esanguratsuak gertatu ziran gure inguruan. Landa komunitate txikia dan Dima herrian gizarte antolaketa ardatz hartuta, aldaketa guzti horreek azaleratzen ditu lan honek. Bertan, personak hartu-emon sozialen munduan txertatzen diran egitura artikulau tinko bat ikusten da, etxetik abiatuta, "etxea" da-eta gizabanakoak inguruko esparru sozialean -auzoa eta herria eta euren erakundeetan: Kofradia eta Elizatea- parte hartzerakoan berau identifiketako erreferentzia nagusia. Hori guztia garatuz eta aldatuz joan da XIX. mendea-



ren eta XX.aren hasikeran zehar emon diran gertaera politiko eta aldaketa sozialen baitan" dino Ariznabarretak.

Andoni Egaña eta Gari Otamendi izango ditu lagun Ariznabarretak aurkezpenean. Aforoa bermatzeko izena emon behar da 685 759 997 telefonoan edo [kultura.dima@bizkaia.org](mailto:kultura.dima@bizkaia.org) helbide elektronikoa.

## Erredakzioa

"Bizi dogun egoera hau izanik ezin dogu egin buruan geunkan inaurazino ekitaldia gura genduan moduan" azaldu deutso BEGITURI Esti Carracedo Kultura Teknikariak. Eta horregaitik, ate irekierea antolatu dabe herritarrai bisitak eskainiz. Bisitak 11:00etatik 14:00etara izango dira, ordu laudenero, taldetan. Izena hilaren 20ra arte emon daiteke udal webgunean.

## Ate irekierea

Bisita horreetan bertaratuak espazio guztietatik ibiliko dira ikusten Kotxepin Kultur Etxeak eskaintzen dauana, musika esperimentala entzun bitartean. Lumi musika taldea, beren-beregi Kotxepin Kultur Etxeko ate irekiera girotzeko, ikuskizun bat sortzean dabil "egun horretan garatuko

dauana. Ordu biz egongo da musikea zuzenean bertan".

Kultur Etxea ezetu, eta bertan emongo diran zerbitzuen barri jakiten lehenengoak, Kotxepin Bengoetxea Etxebarriaren familiakoak izango dira. "Kotxepinen lau neba eta ahiztai emon jakie konbidapen berezia eta familiarri harrerea egingo deusagu, prozesu parte-hartzailean lan egin dauan talde eragileagaz batera" dino teknikariak.

## Kotxepin Bengoetxea

Kultur Etxearen izenerako hainbat proposamen jaso ebazan Udalak. "Kultur Etxearen espazioak definitu eta diseinetako parte hartu dauan talde eragileagaz batera, Kultur Etxeari izena emoteko proposamenak ekarteko aukerea zabaldu genduan herrian. Batzuk planteau ziran eta horreetako bat

## KUTXA BIRA

## Zeanuritik pasauko da Kutxa Bira hilaren 29an

## Erredakzioa

Ipar Hegoa alkarteak, Argentina-tik abiatu eta Euskal Herri osoa eta diaspora zeharkatuko dauan egitasmoa abiatu eban martiaren 20an, "Bizi gira... kutxa bira!" lelo-

pean. Ekimen honegaz, kutxa bat mobiduten da herriz herri Euskal Herriko itzulia egiteko. Zeanurin hilaren 29an egongo da, 17:00etan.

Ekimenean parte hartzeako Zeanuriko Laratzue alkarteak hartu eban konbitea. Kutxa Elorriotik

etorriko da, Elorrioko jentek ekarrita eta Zeanurik 19:00etan entregauko deutso Laudiori. Barruan dagoan mezu nagusiaz gain herri baxotxak mezu labur bat sartuko dau kutxan, "amesten dogun herria irudikatu guran, Zeanurin aukeratu dogun gaia "koloretako basoak gura doguz" da eta horren inguruan egituratuko dogu mezu" azaldu deutsie BEGITURI alkartetik.

Viedma-n (Argentina) hasi eban kutxak ibilbidea eta Seguran amaituko dau maiatzaren 30ean.

## LIBURUA

# Karlos Aretxabaletaren *Larru Bero* liburua *ebook* formatuko euskal libururik salduena da

**Karlos Aretxabaleta Bediakoaren, *Larru Bero* ipuin erotiko liburua Amazonen euskal libururik salduena izatera heldu zan eta *ebook* formatuko salduena izaten jarraitzen dau. Bost narrazinok osotuten dabe liburua.**

**Aretxabaletak, Zertu Kultur Elkarteak antolatutako Arratiako Kalenturak Ipuin Lehiaketako bigarren saria jaso eban *Adiorik ez ipuinagaz* eta *Kaixomaitiak* eta Elkarrek eratutako *Kaixomaitia* lehiaketea irabazi eban ipuin beragaz.**

### Erredakzinoa

Apirilaren 5ean argitaratu eban liburua internet bidez, eta euskal digital desbardinatan irakurri daiteke; *ebook*, tabletak, Chromebookak, mobikorrak... eta abar. Momentuz ez dau liburu fisikorik kaleratu, baina, akaso, urte amaierarako aterako dauala azaldu deutso BEGITURI Aretxabaletak.

Guztira bost errelatu aurkitu daitezke *Larru Beron*, baina horreen artean, ez dago *Adiorik ez* Arratiako Kalenturak eta Kaixo-

maitia lehiaketetan saritutako kontakizuna. "Lehiaketen eskubideak dirala eta, ezinezkoa daukat berau argitaratzea; hau da, eskubideak antolatzaileen esku dagoz. Edozelan be, momentuz, *karlos.eus* webgunean zein *Kaixomaitia* atarian irakurgai dago".

*Larru Beron* irakurri daitezkean narrazioak laburrak dira, eta guztira 24 orrialde ditu liburuak. Gai desbardinak jorratzen ditu, "hurbiak, errealak, ezagunak, irakurleak erraz identifikatu daitezkeanak".

### Amazonen libururik salduena

Arrakasta handia izan dau liburuak, argitaratu eta segiduan euskal libururik salduena izan zan Amazonen. "Esan leiteke hurreko jentearen babes jaso dodala, eta hori hasikerako egunetan salmentetan nabaritu zan, baina jakin badakit ezezagunak be erosi dabela. Bestalde, *ebook* formatuko euskal libururik salduena izaten jarraitzen dau, eta Amazonek aitortpen edo etiketa txiki baten bidez adierazoz dau".



Karlos Aretxabaleta.

## FILMAK

# Euskerazko zortzi film labur Igorreko Lasarte Aretoan

### Erredakzinoa


Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Laburbira euskerazko film laburren zirkuituak aukeratutako 8 filmak apirilaren 30ean, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean ikusi ahal izango dira. Aurten, 2019tik hona zuzendari hasibari eta amateurrek ekoiztutako 8 lanek osotuten dabe emondia. XVIII. edizino hau, apirilaren 26tik maiatzaren 30era izango da, Euskal Herri eta kanpoko herri eta urietan. Arratian filmok ikusteko lehengo aukerea Igorrekoa izango da, baina ez bakarria. Areatzan, Diman eta Ubiden be ikusi ahal izango dira filmok maiatzaren 7an, 28an eta 8an, hurrengo hurrengo.

Zirkuitua osotuten daben zortzi filmak, Ruben Cresporen *Aterpean ateri*; Imanol G. Gurrutxagaren *Nigandik*; Ilune Diaz Polacinoren *Game Over*; Ekhiñe Ai-

zkorbe, Sara Alonso, Irati Egibar, Julene Etxauri, Xabier Vallina eta Irene Zalduaren *Ilunabarrean esan*; Andoni Martinez de Madinaren *Babarrun txapelketa*; Aitor Arruti Agirreurretaren *Datsegit*; Ximun Fuchs, Eñaut Castagnet eta Manex Fuchs-en *Nire eguneroko maitea* eta Spookypheria Productions-en *Agur* dira.

Honeetako batzuk Zinebi eta Mendifilm Festival jaialdian aurkeztutako lanak izan dira 2019-2020 bitartean eta beste batzuk metraje laburreko lehiaketetan sariak jaso ditue: Huhezinema eta Kameratoia.

Zertu Kultur Elkarteak antolatuten dau Laburbira, Areatza, Igorre eta Ubideko Udalen laguntzeagaz herri horreetan, eta Diman Udalak eta Abizarie Euskara Elkarteak antolatzen dabe. Zertu Kultur Elkarteak, BEGITU argitaratzen dauan alkarteak, euskera alkartearen federazioa dan Euskaltzaleen Topaguneko partaidea da.



## DUNBA

# Eukalipto orioa

### Zeberioko Zubialde eskolako 3. zikloko ikasleak

Kaixo, Zubialde eskolako 3. zikloko ikasleak gara. Aurtengo ikasturtean gure proiektuaren gaia Parke Naturalak da eta Euskal Herrikoak aztertu ostean, Gorbeialdeko Parke Naturalaren inguruko lanketea egin dogu.

Horren barruan, inguruko landaredia aztertu dogu: zugatzak, zugaxkak, sendabedarrak... Atzen talde honetan eukalipto baliatuz ukendu bat prestatu dogu gelan. Jakin gura dozue zer dan eta zertarako balio dauan eukalipto orioa? Ba adi irakurri hurrengo lerroak!

### ZER DA EUKALIPTO ORIOA?

Eukalipto zugatzetik hartutako hostoakaz egindako ukendua da. Eukalipto sendabedar bat da eta Zeberio aldean erraz aurkitzen da auzo desbardinatan (Saldarian, Undurraga, Olatxu, Uriondo, Elizondo, eta abar).

### ZERTARAKO BALIO DAU?

Ukendu honek funtzino desbardinak ditu, adibidez: masajeak emoteko, usaingarri legez, erredu-rentzako, mukiak kentzeako, antinflamatorio moduan... erabili daiteke.

### ZER BEHAR DOGU EUKALIPTO ORIOA EGITEKO?

-Eukalipto hostoak.



- Edozein orio.
- Artaziak.
- Pote bat.
- Iragazkia.

### PROZEDUREA: ZELAN EGITEN DA?

Hasteko, eukalipto hostoak hartu

behar dira (4-5). Honeek lehortzen itxi behar dira. Hostoak lehortu ostean, erdian daukien zaina (nerbioa) kendu eta zainak alde batera itxita, hostoak eskuakaz birrintzen hasi.

Ondoren, sortutako zati txikiak potean sartu behar dira eta arta-

zien laguntzaz eukalipto hostoak zatitu hauts bihurtu arte. Hauts bihurtu eta gero, potea orioz bete beharko dozue. Tapa ondo zarratu eta ondo nahastu.

Amaitzeko, 21 egunez erreposoan itxi. Egun horreek pasatu ostean, orioa potetik atera behar da eta iragazkitik pasatu behar da. Hori eginda, ukendua prest egongo da erabiltzeko!



## AGENDEA

APRILAK 19  
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udala Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

## AREATZA

Udabari osoan ekintza autogidatua. Arrabako zelaietan mendizaletasuna sustatzeko proba jolasa. Beharrezko materiala jaso Parketxean. Izen emotea 94 673 92 79 edo [gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus).

## ARRATIA

Hilaren 24rako Etxerat-ek antolatutako Bazkaria etxera! Plater bete elkartasun ekimenean bazkariak eskatzeko aukerea hilaren 21era arte. Artean, 600 389 055; Areatzan, 688 879 713; Diman, 688 733 965; Igorren, 699 919 085; Lemoan, 656 799 612 eta Zeanurin, 620 253 725 telefonoan.

## BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 23ra arte, "Egutegia: Bediako ohiturak erakusten" lehiaketarako izen emotea liburutegian.

## IGORRE

Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo [liburu.igorre@gmail.com](mailto:liburu.igorre@gmail.com) helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 13:30era, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

Maiatzaren 10era arte, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen *Mendirik mendi* argazki erakusketea Kultur Etxean.

## LEMOA

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

09:30etik 11:00etara, astelehenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako ibilaldi gidatuak nagusientzat Gudarien parkean, alde aurretik izena emon barik; 11:00etatik 13:30era astelehenetan, orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon.

Hilaren 20ra arte, 24an izango dan Kotxepin Kultur Etxearen ate irekierarako

izen emotea [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

Hilaren 22ra arte, 24an izango dan umeentzako ipuin kontaketa izen emotea [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

Hilaren 23ra arte, 27an izango dan Familia lagun olgetan-erako izen emotea [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

APRILAK 20  
ARTEA

17:30ean, Jubiladuen alkarteak antolatutako berbaldia *Cómo salir fortalecido de las situaciones difíciles* eskolan. Izena alde aurretik emon udaletxean.

## IGORRE

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Gure burua ezagutzea eta ahalduntzea argazkilaritzaren bidez* ikastaroa Kultur Etxean.

APRILAK 21  
LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik

20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udala antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakoitzean 10 personako taldeak gehienez izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

## ZEANURI

18:00etatik 19:30era, *Nerabezaroa: gurasoen erronkarik handiena* ikastaroa. Zulaibar Lanbide Ikastegiak eta AUMek antolatuta. Izena [prebentzioa.ariatia@bizkaia.org](mailto:prebentzioa.ariatia@bizkaia.org), [iraide@zulaibar.org](mailto:iraide@zulaibar.org) edo 688 643 305 edo 94 673 91 16 telefonoetan emon.

## Erreka Mari umeentzako txotxongilo ikuskizuna Bedian

Aprilaren 23an, Liburuaren egunean, Bediako liburutegian, Rosa Martinezen txotxongilo taldeak *Erreka Mari* lanaren emondia eskainiko dau 18:00etan, 3 urtetik gorako umeentzat.

*Erreka Mari* antzezlan euskal pertsonaia mitologiko baten oinarritzen da, azken laminan, hain zuzen be. Erreka Mari eta Martinek, herriko biztanleen aldetik jasan behar dituen arazo eta eragozpenak kontetan dauz umorez. Erreka Mari Euskal Herriko azken lamina da; izan be, "hainbeste zikinkeria, inbidia eta marmarrakaz, nekez bizi daitezke oindino laminak" Euskal Herrian.

APRILAK 22  
ARANTZAZU

18:00etan, jaiak antolatzeko batzarra. Udaletxeko goiko lokalean.

## DIMA

18:30ean, Andraizeak antolatuta, *Irakurketa feminista* tailerra Kattalin Minerrek gidatuta. Irakurri beharreko liburuak, Karmele Jaioren *Aitaren etxea*. Abaroa Aretoan.

APRILAK 23  
DIMA

18:00etan, Abel Ariznabarretaren *Auzo bizitza Diman 1800-1936* liburuaren aurkezpena eskolako kamaran. Aforoa bermatzeko izena emon behar da 685 759 997 telefonoan edo [kultura.dima@bizkaia.org](mailto:kultura.dima@bizkaia.org) helbide elektronikoa. Andoni Egaña eta Gari Otamendi be izango dira.

## LEMOA

18:00etatik 21:00etara, Ilgoran Andren Jabekuntzako Eskolako *Elektrizidade* tailerra Kulturugunean. Izen emotea 688 627 393 telefonoan edo [berdintasuna2.ariatia@bizkaia.org](mailto:berdintasuna2.ariatia@bizkaia.org) helbidean.

18:30ean, berbaldia Ainara Ortega Barrenetxearen eskutik *Legearen gainbegirada bat. Zer egiten ari dira? Zer da legala eta zer ilegal? Herritar moduan zer egin dezakegu?* Karabie Gaztetxean. Aurretik emon behar da izena [harriketarrakblog.wordpress.com](http://harriketarrakblog.wordpress.com) helbidean.

APRILAK 24  
ARRATIA

Etxerat-ek antolatutako Bazkaria etxera! Plater bete elkartasun ekimenean bazkariak jaso. Artean, 14:00etatik 14:30era udaletxe aurrean; Areatzan, ordutegi berean, Gudarien Plazan; Diman, 13:30etik 14:30era eskoletan; Igorren, 13:45etik 14:15era, Herriko Tabernan; Lemoan, 13:30etik 14:30era Gaztetxe azpian eta Zeanurin, Kultur Etxe azpian 14:00etatik 14:30era.

## ARTEA

17:30ean, Rosa Martinezen konpainiaren txotxongilo ikuskizuna *Noraren sekretua* eskolan. Izena alde aurretik emon udaletxean.

18:30ean, ipuin lehiaketaren sari banaketea eskolan.

## LEMOA

10:00etatik 13:00etara, Ilgoran Andren Jabekuntzako Eskolako *Elektrizidade* tailerra Kulturugunean.

11:00etatik 14:00etara, Kotxepin Kultur Etxearen ate irekierara.

17:00etan, 3 eta 7 urte bitarteko umeentzat, Ameli eta Xirrikietuen Jostunek *Txanpon baten truke* ipuin kontaketea liburutegian.

APRILAK 25  
IGORRE

16:30ean, zinea, *Tom y Jerry*, 18:45ean, *Minari*. *Historia de mi familia* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

10:00etatik 13:00etara, Ilgoran Andren Jabekuntzako Eskolako *Elektrizidade* tailerra Kulturugunean.

APRILAK 26  
IGORRE

18:30ean, berbaldia, *Arratiako egoera ekonomikoa*. Kultur Etxean. LABek antolatuta.

## LEMOA

09:30etik 11:00etara, astelehenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko

programako ibilaldi gidatuak nagusientzat Gudarien parkean, alde aurretik izena emon barik; 11:00etatik 13:30era astelehenetan, orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon.

APRILAK 27  
LEMOA

16:45etik 18:45era, LH1 eta LH2koentzat, Familia lagun olgetan beheko frontoian.

APRILAK 28  
LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udala antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakoitzean 10 personako taldeak gehienez izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

APRILAK 29  
ZEANURI

17:00etan, Kutxa Bira. Larazue alkarteak antolatuta.

APRILAK 30  
AREATZA

18:00etan, Hiba plays Benito kontzertua eskoletako aterpean. Hiba Etxebarria, gitarra eta abotsa; Ainara Ziskar, abotsa; Xabi Aburrutzaga, trikititxia; Alain Gallego, tekladua; Gotzon "Blues" Ereño, gitarra elektrikoa; Xabi Barrenetxea, baxua; Iraide Ansorena, perkusinoa; Carlos Sagi, bateria. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon hilaren 29ra arte.



## IGORRE

19:00etan, Euskaltzaleen Topaguneak eta Zertu Kultur Elkartek antolatutako Laburbira zirkuituko saioa. Filmak: *Aterpean ateri*, *Nigandik*, *Game Over*, *Ilunabarrean esan*, *Bobarrun txapelketa*, *Datsegit*, *Nire eguneroko maitea* eta *Agur*. Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 1  
IGORRE

12:00etan, Maiatzaren Lehena dala eta manifestazioa GEA-Kelvionetik hasita. LABek antolatuta.

MAIATZAK 2  
AREATZA

10:00etatik 14:00etara, merkadua eskolako aterpean. Erosketa guztiak tokiko produktuuen zozketan parte hartuko dabe. **IGORRE**  
16:30ean, umeentzako zinea; 18:45ean, zinea Lasarte Aretoan.

**begitu**  
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

### LANA

#### ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizatu egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating-a* oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: [narao\\_esparza@hotmail.com](mailto:narao_esparza@hotmail.com) (lehen hitzordua doban).

#### TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoi eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetak herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezker idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

#### LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezker deitu 648 470 485 telefonora.

#### SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modelo, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Areatzako Udalak emondako Areatza bisitatzeko koadernoak liburua.

Nekane Irigorri (Igorre)  
Lander Gurtubai (Igorre)



**2** Suger taldeak emondako kamiseteta.

Mikel Iriondo (Dima)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umeen moda  
**sema**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semoda@hotmail.com](mailto:semoda@hotmail.com)

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tf. 94 631 92 00

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

NAIARA Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
04 631 52 26

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. beheka - Igorre (Bizkaia)

Gugaz harremanetan ipinteko  
Publizitatea:  
649 979 115  
**begitu**  
94 631 73 14  
454  
649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## BEGITUK **kazetaria** behar dau

Zertu Kultur Elkartearen kazetari zereginetarako lan eskaintzea.

### Eskatzen dogu

Kazetaritza edo ikus-entzunezko ikasketak.  
Webgune eta sare sozialen kudeaketan ezagutza.  
Argazkigintzan eta bideogintzan ezagutza.  
Idazketa maila altua.  
HABEko C1 euskera maila edo baliokidea.  
Izaera dinamikoa eta hartu-emonetarako gaitasuna.  
Gidabaimena eta motordun ibilgailua izatea.

### Balorauko dogu

Erredaktore beharretan esperientzia.  
Arratiarra izatea edo Arratian bizitea.  
Maketazino eta diseinu ezagutzak.  
Bizkaiera idatzizko ezagutza.  
HABEko C2 euskera maila.  
Kurrikulumagaz batera, argitaratutako testu edo lanak bialtzea.

### Eskaintzen dogu

Jardunaldi erdiko lanaldia (18 ordu eta erdi astean).

**Interesa daukazuenok kurrikuluma bialdu daitezue, maitzaren 15a baino lehen, helbide honetara: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)**

begitu



LEMOA  
946 31 44 06  
ZABAL@ALKIZABAL.NET

**ALKIZABAL**  
LEMOA - BASAURI  
[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

BASAURI  
946 31 03 99  
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

begitu

## Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzen deutsu.

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.  
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu  
(beste aldizkari batzuk, internet...).

**1. AUKEREA**  
Diseinua +  
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€\*

**2. AUKEREA**  
Diseinua +  
4 modulo BEGITUko portadan

135€\*

Publizidadea:  
**649 979 115**

\*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.